

TELEFONAK

● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 092 ● **DYA:** 943 464622
● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
● **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022 ● **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

PALA - EUSKAL HERRIKO KLUBEN ARTEKO TXAPELKETA

Hernaniarrak final erdietara Euskal Herriko txapelketan

Nafarroako taldearen kontra ari beharko dute igandean, asteburu honetan Lea-Artibairi irabazita. Kadeteek ere hasi dute txapelketa.

HERNANIARRAK beti bezala fin ari dira Euskal Herriko klubaren arteko txapelketan, eta nagusien mailan final erdiak jokatu dituzte datorren igandean, oso bikote zailaren kontra: Maite Ruiz de Larramendi (Eulate), hainbat aldiz munduko txapeldu izandakoa, eta Etxa-

rriko Aristorena. Partidu hori irabazteko beharrezkoa dute aurrelariari jokatzeari, bestela lanak izango dituzte hernaniarrek. Joku puntu ederrean eta animoz kargatuta iritsiko dira Hernaniko bi paletariak, asteburu honetan Lea-Artibaiko bikoteari erraz irabazita, 23-30.

Kadeteen EHko liga

Joan den asteburuan hasi dute kadeteek Euskal Herriko liga, eta guztira 7 partidur inguru jokatu dituzte. Joan den asteburuan, Hernaniko bi bikotek jokatu elkarren kontra eta Andreak eta Ixonek irabazi zieten Amaia eta Maddiri, 30-19. ■

ASTIGARRA - TXOTX IREKIERA BIHAR



Honakoak dira La oreja de Van Gogh taldeko kideak: Leire Martinez (ahotsa), Pablo Benegas (gitarra), Alvaro Fuentes (baxua), Xabi San Martin (teklatura) eta Haritz Garde (bateria).

Pop doinuak, Astigarragako txotx denboraldia hasteko

'La oreja de Van Gogh' taldeak irekiko du Astigarragako txotx denboraldia, bihar, 13:45ak inguruan, Petritegi sagardotegian.

ASTIGARRAGAK bihar hasiko du txotx denboraldia, eta aurten pop doinuaren egingo dute, gainera. La oreja de Van Gogh taldeko kideek egingo dute txotxero lana, egun batez, Petritegi sagardotegian.

Talde donostiarrak lortu du mundu mailan ezagun

egitea, eta sekulako tiradizoa du eta dagoeneko 8 milioi disko salduak ditu, Estatu Batuak, Frantzia, Italia edo Hego Ameriketara. Pop taldea izanagatik, egiten dituzte bestelako kantuak ere: rantxera, bossa nova, dance, elektronikoak edo rock ikutukoak ere.

Egun guztiko festa

Astigarragako ongi etorri beroa egingo dio sagardo berriari, eta egun guztiko festa prest dute bisharko. 12:00etan prentsaurrekoa; 13:00etan sagarra landatu; 13:45etan txotx irekiera Petritegi; 18:00etan *Pintxotx* tabernetan; 20:30etan sagardotegira. ■

EGURALDIA

GAUR Euri zaparrada handiak egingo ditu gaur, eta hargatik alerta naranja eman dute. Haizea ere zakar, eta hotz sentazioa berez baino handiagoa. Min.6°/Max.9°

BIHAR Maximoek gora egingo dute pixka bat, baina gainerakoan aldaketa gutxi. Ipar-mendebalea zakar ibiliko da eta alerta horia emana dago euria eta haizeagatik. Min. 6°/Max.10°.



ITXASPE ARRANDEGIA

Hortzak zorrozteko moduko bi otar, Maria Zubiarrain eta Nagore Fragarentzat

Itxaspe arrandegiko bezeroek ez dute zorte makala. Aurten ere bi otar eder banatu dituzte, edozeini inbiri emateko modukoak. Sarituak: Maria Zubiarrain eta Nagore Fraga (Adela Torres ere gustora aski zen sariarekin!). Enkarni Aranburuk banatu zizkien sariak irabazleei. Otarra bakoitzean: legatz bat, kilo bat bakailao, kilo bat txibia, kilo bat legatz kokotxa, kilo bat almeja, kilo bat raba, kilo bat otarrainxka eta kilo bat txaka. On egin dezaiela! ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† LUIS RUIZ ESCUDERO

JAUNA
"PAXTERO"
(Elena Mallesen alarguna)
Atzo hil zen, 92 urte zituela, Elizakoak eta Alta Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Luis Mari eta Rosi Ibarguren, Eduardo eta Maixa San Ildefonso, Ander eta Miren Arriet; bilobak: Ekain (*), Zaloa eta Agusti Serres, Idurre, Igor eta Lorena Flores, Ainara, Iker eta Irigo; birloba: Elia; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parrokia elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko urtarrilaren 15ean

Helbidea: Etxeberri, 8 - 8 B
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:15ak arte.



† APOLONIA ARRUTI MENDICUTE

ANDREA
(Juan Eizmendiren alarguna)
Herenegun hil zen, 95 urte zituela, Elizakoak eta Alta Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian Bego -

Seme-alabak: Jose eta Mari Cruz, Pilar eta Imanol (*), Juan Miguel eta Rosario, Anton eta Mari Jose; anai-arrebak: Miguel, Carmen eta Juanito; ezkon anai-arrebak, bilobak, birloba, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezela **GAUR, ASTEARTEA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILA** parrokia elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2013ko urtarrilaren 15ean

Helbidea: Santa Barbara, 51 - 1
OHARRAK: Gorputza ORBEGOZO EHORKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 12:00ak arte.



IRAGARKI MERKEAK

Gabriel Zelaian garajea salgai. Deitu: 607 349 163

Alokatzeko pisu bila, 3 gelatak. Erreferentzi eta informekin. Deitu: 686 59 78 93

ETXKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Ilago Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrale, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)